

6 mantangorri




AZOKA

## DISKO ETA DVD-A

**Izenburuak:** 'Kantari' eta 'Leidor!'. **Egilea:**

Poxpolo ta Konpainia. **Edukia:** 11 abesti bildu dituzte diskoan. Leidor antzokian eskaintzen duten urteroko emanaldiaren pasarteak eta Mokolo pailazoaren omenaldia jasotzen dira DVDan. **Prezioa:** Diskoa zein DVDa, 20 euro. **Webgunea:** [Poxpolotakonpainia.com](http://Poxpolotakonpainia.com)

**Argitaratzailea:** Poxpolo ta konpainia.



## Iker Galartza

POXPOLO PAILAZOA

# «Disko martxosoa da, dantzagaria eta oso animatua»

**H**erriz herri, batetik beste-ira ibiltzeari utzi ez badiote ere, azken bost urteetan ez zuten lan beririk aurkezu, eta, bat-batean, bi eskaintza berriarekin datozen Poxpolo ta Konpainia: *Kantari* diskoa eta *Leidor!* DVDa. Abesti ezagunak zein sortu berriak bilten dira diskoan. DVDan, berriz, urtero Tolosako (Gipuzkoa) Leidor antzokian eskaintzen duten emanaldiaren hainbat une ikus daitezke; Mokolo pailazoa ere gogoan izan dute. Poxpoloren hitzetan, ongi pasatzeko aproposak dira abesti zein esketx guztiak.

### Zer bildu duzue 'Kantari' diskoan?

Mokolo hil zenetik, ez genuen disko berriak atera, eta abesti zaharrak kantatuz genbiltzan, han eta hemen. Haurrak ezagutzen dituzte abestiak jada, eta haien artean gu oso gustura genbiltzan. Hala ere, zerbaitek berria egiteko garaia bazeala uste genuen, eta, halaxe, disko berrirako abestiak sortzen hasi ginen. Hiru bagenituen jada, eta disko osatzeko beste batzuk sortzea erabaki genuen. 11 abestiko bilduma osatutakoan, diskoa grabatzea erabaki genuen.

### Abesti guztiak ez dira berriak, baina?



Poxpolo ta Konpainiak Tolosako Leidor antzokian eskainitako emanaldiko irudi bat. POXPOLO TA KONPAINIA

Ez, ez, badira betidanik ezagutzen ditugun abestiak ere. Diskorako abestiak sortzen ari gina, hurrentzako hain ezagunak diren kanta batzuk sartzea beharrezko iku-si genuen: *Alferraren asteaeta* *Markoxen txarrixe*, kasu. Hala, sortu berri genituen abestiekin batera, beste hainbat herri kanta txeratzea erabaki genuen. Orotara, beraz, sekula entzun gabeko sei abesti berri daude, eta gainerako bostak Euskal Herriko herri kanten bertsioak dira. Iku-sleek abesti berriak gustura hartzen dituzte, baina den-denak berriak izatea ere ez dute nahi izaten. Beraz, nahasketa bat egitea erabaki genuen.

### Hitz gutxitan, nola definituko zenuke diskoa?

Disko martxosoa da, dantzagaria eta oso animatua. Oso kanta alaiak dira ia guzti-guztiak. Eta animaliek protagonismo handia dute, hurrek animaliak oso gogoko dituzte-la ongi baitakigu. Hala, asto bat sortu dugu iku-sizuneko, eta abesti bat egin diogu. Astoarekin batera, Bizkaiko *Markoxen txarrixe* gogora ekartzen dugu diskoan, eta baita behi bat ere. Ukuilu giroko disko atera zaigula esan liteke.

Oso hemengo diskoak egin dugu: akordeoi eta eskusoinu doinu asko dituzte kantek; tronpetak, saxo-

foiak, tronboiak eta haize instrumentuak ere asko erabili ditugu.

Tolosan txarangazaleak gara, eta horixe igartzen da diskoan.

### Lagun taldearen konpainia izan duzue, beraz?

Mokolo hil zenez gerotzik, ea Poxpolo bakarrik zen galdeztzen zuen jendeak. Bakarrik nekez egin liteke ezer, eta, horregatik, Poxpolo ez da sekula bakarrik egoten, beti konpaina-rekin ibiltzen da. Horregatik izena du taldeak hala: Poxpolo ta Konpainia. Eta, kasu honetan ere, halaxe izan da: talde handia izan dugu lagun. Gu ez gara kantari profesionalak, eta, beraz, gure kantuak goxatzeko eta kolorea emateko, Elene Arandia abeslariaren lagunza paregabea izan dugu; gurekin batera kanta guztiak abestu ditu, eta horrek eman dio diskoari behar zuen kolorea. Arandiaz gain, haurrak ere gurekin izan dira: Loatzoko musika eskolako haurrak eta Irurako ikastolako ikasleak.

### Diskoarekin batera, DVDA ere prestatu duzue iku-sleentzat?

Urtero, Gabonetan, emanaldi berezia egiten dugu Tolosako Leidor antzokian. Plazaz plaza gabilzanean egin ezin ditugun gauzak prestatzen ditugu emanaldi berezi horretarako. Tolosako Udaberri dantza taldeko lagunak ere gure abestiak ikasten dituzte, koreografiak prestatzen dituzte eta iku-sizunean parte hartzen dute. Emanaldi osoago bat egiten saiatzen gara. Urtero, emanaldi hori bideoz grabatzen dugu. Urtero DVD bat argitaratzeko aurrekonturik ez dugu, baina. Bizpahiru emanaldi grabatuak genituela baliatuz, DVDan jasotzea erabaki dugu. Hala, emanaldiak pasarte batzuk aukeratu, eta DVDa osatu dugu. Gauza alaiak, arinak txertatu ditugu, eta magia trikimailu txikiak ere sartu ditugu.

### Mokolo zena ere gogoan izan duzue.

Bai. Mokoloren omenez, esketx txiki bat egin genuen, eta hura ere iku daiteke DVDan, hura oroitzea ere beharrezko zela uste baien-nen; Mokolo ezagutzeko plazera izan ez zutenek haren berri izan dezaten.